

LEGE OHARRA ETA PRIBATUTASUN POLITIKA

Lege Informazioa

Informazioaren eta Merkataritza Elektronikoaren Gizartearen Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legea betez, jakinarazi nahi dizugu www.soziolinguistika.eus interneteko domeinuaren titularraren honako hau dela:

Sozietatearen izena: Soziolinguistika Klusterra Elkartea

IFK: G20843264

Helbidea: Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140

Herria: Andoain (Gipuzkoa)

Telefono-zenbakia: 943 592 556

Helbide elektronikoa: kluster@soziolinguistika.eus

Inskripzio-datuak: Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Errolda Nagusian inskribatuta, AS/G/11250/2004 erregistro-zenbakiaz.

1. Baldintza Orokorrak

www.soziolinguistika.eus Soziolinguistika Klusterra Elkartearen jabetzako web gunea da. Erabiltzailea borondatez sartu ahal izango da bertan, eta gainera, sartzea doakoa da. Web gune honetan nabigatzeak esan nahi du erabiltzaileak ezagutzen eta onartzen dituela bertako lege oharrak, erabilera baldintzak eta bertako pribatutasun politika. Erabiltzaileak ez baditu onartzen baldintza horiek, eta beraz, ez badie onespena ematen, ezingo du web gune honetan nabigatu.

Web gune honetan sartzea eta bertako informazioari zeinahi erabilera ematea erabiltzailearen eta soilik erabiltzailearen erantzukizunpekoak izango dira. Hala, informazioa web gunearen helburuarekin bat eginda erabiltzeko konpromisoa hartu beharko du erabiltzaileak.

Erabiltzaileak ezingo dio eman, beraz, legez kontrako erabilerarik web guneko informazioari. Bide beretik, ezingo du web guneko informatika-sistemei kaltea eragin diezaikeen ekintzarik egin.

Erabiltzaileek galarazita izango dute eduki faltsuak edo okerrak txertatzea edo jakinaraztea; esan nahi baita, ezingo dute eman Soziolinguistika Klusterra, beste erabiltzaile batzuk edo hirugarrenak nahasteko moduko edukirik. Erabiltzailea bera izango da, horrenbestez, ematen dituen datuekin eragindako kalteen erantzule bakarra.

Ezin da erabili hirugarren pertsonen datu pertsonalik, euren baimenik gabe. Era berean, debekatuta dago hirugarren pertsonen identifikazio-datuak erabiltzea, beste pertsona edo entitate baten tokian jartzeko asmoz.

Soziolinguistika Klusterrak ahalegin handia egiten du web gunean argitaratzen diren edukietan akatsik egon ez dadin. Beraz, beretzat gordetzen du noiznahi horiek aldatzeko eskubidea. Soziolinguistika Klusterrak espresuki uko egiten dio web gune honetako edukietako akats edo hutsegiteengatiko erantzukizunari eta baita horien egiazkotasun-, zehaztasun- eta gaurkotasun-faltaren ondoriozko kalteengatiko erantzukizunari ere.

www.soziolinguistika.eus-ek beste web gune batzuetarako estekak jar ditzake edo bere web gune bilatzaile batekin horietarako sarbidea eman dezake. Soziolinguistika Klusterrak ez du bere gain hartzen estekatutako gune horietako ezein edukiren erantzukizunik, ezta bilaketen emaitzarenik ere; izan ere, ez du horien gaineko eta horietan eskainitako eduki, produktu eta zerbitzuen gaineko erantzukizunik. Zerbitzu horien helburua, hain zuzen, erabiltzaileei beste informazio-iturri batzuen berri ematea da; horregatik, erabiltzailea soil-soilik bere erantzukizunpean sartuko da eduki horietara, bertan araututako baldintzen arabera.

Soziolinguistika Klusterra ez da web gune honen edo bertako edukien erabileratik eratorritako edozein ondorio edo kalteren erantzulea izango, informatika-kalteak eta birusak txertatzea kontuan hartuta. Soziolinguistika Klusterrak ez du bermatzen web gunean ez dela inolako birusik edo bestelako elementurik izango, kanpoko hirugarrenek txertatutakoak, eta erabiltzaileen sistema fisiko zein logikoei kalteak ekar diezazkieketenak; nolana ere, eskura dituen bitarteko guztiak erabiliko ditu, horrelakorik gerta ez dadin.

Soziolinguistika Klusterrak beretzat gordetzen du noiznahi, aldeztatik aurrerik edo azalpenik eman gabe, web gune honetako diseinua, konfigurazioa eta informazioa aldatzeko edo ezabatze eskubidea, baldin eta beharrezkoa dela iruditzen bazaio. Soziolinguistika Klusterrak ez du bere bizkar hartuko aldaketa horiek ekar ditzaketen kalteen erantzukizuna. Dena den, eskura dituen bitarteko guztiak erabiliko ditu, erabiltzaileei aldaketa horien berri emateko.

2. Erregistroak eta harpidetzak

Web gune honetan sartzeak ez dakar, halaber, datu pertsonalak eman behar izatea. Nolanahi ere, eskaintako zerbitzu batzuk erabiltzeko beharrezkoa da aldeztatik erregistratzea. Erregistroa segurua eta zerbitzua egokia izan daitezen, ezinbestekoa da erabiltzaileak hainbat datu pertsonal ematea.

Erabiltzaileak egiazko datuak, zehatzak eta osotuak emateko konpromisoa dauka, bai erregistroa egitean, eta baita geroko jakinarazpenak gauzatzean ere. Hala, horien edozein aldaketaren berri emateko erantzukizuna ere izango du.

Erregistro-galdetegietan derrigorrezkotzat jotako eremuak hutsik utziz gero, Soziolinguistika Klusterrak, beharbada, ez dio erabiltzailearen eskaerari erantzuko.

Soziolinguistika Klusterraren hainbat zerbitzutan erregistratzeak edo horietara harpidetzeak esan nahi du erabiltzaileak onartu egiten dituela Soziolinguistika Klusterraren baldintza orokorrak eta pribatasun politika. Era berean, esan nahi du erabiltzaileak espresuki onartu eta baimena ematen diola Soziolinguistika Klusterrari, bere zerbitzuei buruzko merkataritza jakinarazpenak bidaltzeko, nola posta arruntez, hala bitarteko elektronikoen bitartez. Jakinarazpenen hartzaileak, nolana ere, baimen hori ezeztatu ahal izango du, noiznahi. Horretarako, idatzi bat bidali beharko dio Soziolinguistika Klusterrari.

Erabiltzaileek borondatez eskatu ahal izango dute berripaperaren edo beste buletinaren harpidetza egitea. Nolanahi ere, erabiltzaileak edonoz eskatu ahal izango du zerbitzu horretan baja emateko. Horretarako, erabiltzaileak Soziolinguistika Klusterraren web gunean dagoen harpidetza eteteko zerbitzua erabil dezake.

3. Sarbide-gakoaren erabilera

Gune pribatura sartzeko gakoak, hain zuzen, pertsonalak, isilpekoak eta besterenezinak dira. Erregistratutako erabiltzaileak pasahitza erantzukizunez erabiltzeko eta inori ez jakinarazteko konpromisoa izango du. Erregistratutako erabiltzaileak ez dio bere gakoaren berri emango telefonoz, posta elektronikoz, web gunearen bitartez edo beste edozein bidetatik pasahitza eskatzen dion inori.

Erabiltzaileak ohartzen bada norbait era bidegabean edo baimenik gabe dabilela bere sarbide-gakoekin, berehala jakinarazi beharko dio Soziolinguistika Klusterrari.

4. Jabetza intelektual eta industrial

Web gune honen jabetza-eskubideak, eta baita bertako orrialde, pantaila, informazio, itxura zein diseinu, produktu eta zerbitzu, marka, logo, lelo eta gainerako jabetza-eskubideak ere, Soziolinguistika Klusterrarenak dira, non eta ez den bestelakorik adierazten.

www.soziolinguistika.eus web gunean sartzeak edo bertan nabigatzeak ez du esan nahi, inola ere, Soziolinguistika Klusterrak bere jabetza intelektual edo industrialaren eskubideei uko egiten dienik, edo erabiltzaileari bere erabilera pertsonalerako utzi edo baimena (erabatekoa edo hein batekoa) ematen dionik.

Norbaitek lan horiek baimenik gabe erreproduzitu, banatu, merkaturatu eta eraldatzen baditu, Soziolinguistika Klusterraren jabetza intelektualaren eskubideak urratuko ditu.

Erabiltzaileak web gune honen titulartasunari kalteak eragingo lizkiokeen zeinahi ekintza ez egiteko konpromisoa hartuko du. Web guneko informazioa baimenik gabe erabiliz gero, edo titullarren jabetza intelektual eta industrialaren eskubideei kalteak eraginez gero, dagokien lege-ekintzak egikaritu ahal izango dira, eta hala badagokio, hori egikaritzetik eratorritako erantzukizunak bete beharko dira.

5. Aldaketak

Baldintza hauek guztiak aldatu ahal izango dira, baldin eta Soziolinguistika Klusterrak noizbait egokitzat jotzen badu; bai lege-aldaketei egokitzeko, bai bestelako hobekuntza batzuk egiteko. Aldaketa horiek indarrean egongo dira web gune honetan argitaratzen diren unetik aurrera. Soziolinguistika Klusterrak eskura dituen bitarteko guztiak erabiliko ditu, erabiltzaileei aldaketa guztien berri emateko.

6. Pribatutasun Politika - Datu Pertsonalen Babesa

6.1. Atarikoak

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (aurrerantzean, DBLO) eta bere arautegiaren arabera, interesdunei jakinarazi nahi zaie emandako datu pertsonalak Soziolinguistika Klusterraren fitxategietan jasoko direla, horixe baita Fitxategiaren Erantzulea. Hala, jasotako kontsultei eta eskaerei erantzuteko, interesdunekin harremanetan jartzeko, elkartearen ekimenen inguruen komunikazioak helarazteko eta bere jarduerari legez dagozkion funtzio guztiak egiteko erabiliko dira.

Interesdunen datu pertsonalak, bestalde, isilpean erabiliko dira. Izan ere, Soziolinguistika Klusterrak Datu Pertsonalen Babeserako indarrean den araudia betetzen baitu eta izena emana baitauka Datuak Babesteko Bulegoaren Erregistro Nagusian.

Soziolinguistika Klusterrak interesdunen datu pertsonalak pribatutasunez erabiltzeko eta horiek babesteko konpromisoa dauka; hala, eskura dituen baliabide guztiak erabiltzen ditu, interesdunen segurtasuna eta pribatutasuna bermatzeko. Soziolinguistika Klusterrak, hain zuzen, datuen babeserako autonomiako, estatuko eta Europako erakundeek emandako aholku, berrikuntza eta gidalerroak erabiltzen ditu.

6.2. Datu pertsonalak biltzea

Soziolinguistika Klusterrak ez dio erabiltzaileari datu pertsonalak emateko eskatzen, bere web gunean sartzeko; alabaina, zerbitzu batzuk erabiltzeko, esate baterako gune pribatua eta berripaperaren harpidetza, ezinbestekoa da interesdunak datu pertsonalak ematea. Interesdunak era askean eta borondatez emango ditu bere datuak.

Zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa denean edo/eta legediak horrela agintzen duenean datuak Administrazio Publikoei, erakunde pribatuei eta bestelako hirugarren pertsonaei komunikatuko zaizkio.

Interesdunak, Soziolinguistika Klusterrak antolatutako ekimenetan parte hartzen duen heinean, baimen zehatza ematen dio Soziolinguistika Klusterrari bere datuak Soziolinguistika Klusterrak dituen kolaboratzaileei eta beste profesional independenteei komunikatzeko, zerbitzua burutzeko beharrezkoa denean. Era berean, interesdunak baimen zehatza ematen dio Soziolinguistika Klusterrari emandako datu pertsonalak (izen abizenak, posta elektronikoa, imajina, ahotsa, e.a.), bai paperezko argitalpenetan bai baliabide digitaletan, argitaratzeko, bere zabalkunde proiektua burutzeko beharrezkoa denean.

Web gune honen bitartez informazioa bidali behar bada, ezinbestekoa da honako pribatutasun politika honetan eta web gunearen baldintza orokorretan deskribatutako datuen tratamendurako eta komunikaziorako baimena ematea.

6.3. Interesdunen eskubideak

Soziolinguistika Klusterrak erabiltzaileari gogorarazi nahi dio noiznahi erabil ditzakeela datuetara sartzeko, datuak aldatzeko zein ezeztatzeko eta tratamenduari aurka egiteko eskubideak. Horretarako, idatzi bat bidali beharko dio Fitxategiaren Erantzuleari: Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain (Gipuzkoa), Tel.: 943 592 556 edo, bestela, kluster@soziolinguistika.eus helbide elektronikoaren bitartez. Eskaerarekin batera, interesdunaren Nortasun Agiriaren fotokopia bidali beharko da.

Eskaera lege-ordezkarari moduan egiten badu, berriz, Nortasun Agiriaren fotokopia ez ezik, ordezkaritza horren egiaztatzea ere bidali beharko du.

6.4. Segurtasun-neurriak

Soziolinguistika Klusterrak, bere fitxategietako datu pertsonalak erabiltzean, datuen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabe erabiltzea saihesteko beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolamendu neurriak hartuko ditu. Betiere, teknologia-egoera, bildutako datuen izaera eta horiek izan ditzaketen arriskuak kontuan izanda; bai giza jardunak eragindakoak, bai ingurune fisiko zein naturalak eragindakoak. Horretarako, aintzat hartuko du datu pertsonalak biltzen dituzten fitxategien segurtasun neurriak aplikatzeari buruz indarrean den legedia; batez ere, DBLO eta beronen garapenerako araudia. Nolanahi ere, erabiltzaileei argi adieraziko zaie segurtasun-neurri informatikoak ez direla erasoezinak, eta ondorioz, gerta litezkeela legez kanpoko esku-hartze edo esku-hartze bidegabeak, baina ez lirakeela Soziolinguistika Klusterraren erantzukizunpekoak.

6.5. Trafiko-datuak eta Cookieak

Soziolinguistika Klusterraren web guneak, erabiltzailearen nabigazioa errazteko eta hobetzeko asmoz, cookieak erabiltzen ditu.

Cookie bat web zerbitzari batek erabiltzailearen disko gogorrean utz dezakeen testu fitxategia da; berriz konektatzen denean identifikatu ahal izateko. Soziolinguistika Klusterraren web guneak berak sortutako cookieak baino ez ditu irakurriko. Soziolinguistika Klusterrak erabiltako cookieak, beraz, erabiltzaile eta ordenagailu bakar bati lotutakoak izango dira; eta ezingo da beste datu pertsonaletara sartu.

Nabigatzaile gehientsuenek automatikoki onartzen dute cookieak erabiltzea; halere, erabiltzaileak bere nabigatzailea konfiguratu dezake, ordenagailuko pantailan cookieak jaso direla adierazteko, eta bide batez, bere disko gogorrean instala daitezkeen saihesteko.

Era berean, web gune honen bitartez zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz, www.soziolinguistika.eus-ek IP helbideak erregistratzen ditu. Era horretan, gerora, datuak prozesatu ahal izango dira, esate baterako, ikusitako orrialdeen kopurua, bisiten kopurua eta web-orriko bisitarien jardueraren eta erabilera-maiztasuna zein izan den aztertzeko.

6.6. Indarraldia

Soziolinguistika Klusterrak beretzat gordetzen du bere pribatutasun-politika aldatzeko eskubidea, bai ordura arteko irizpideak aldatu dituelako, bai lege- edo jurisprudentzia-aldaketak izan direlako. Soziolinguistika Klusterrak aldaketaren bat eginez gero, ordea, testu berria web gune berean argitaratuko du, eta erabiltzailea berehala ohartuko da. Dena den, erabiltzailea web gunean sartzen den unean bertan aurreikusita dauden arauak arautuko dute erabiltzaileekiko harremana. Horregatik, Soziolinguistika Klusterrak gomendatzen dizu aldian-aldian sartzeko pribatutasun-politika horretara

7. Jurisdikzioa

Soziolinguistika Klusterraren eta erabiltzailearen artean sortutako harremana, hain zuzen, aplikatzeko modukoa den legediari eta eskumena daukan jurisdikzioari buruz indarrean den araudian xedatutakoak arautuko du. Nolanahi ere, araudiak aurreikusten badu aldeek eskumen baten mende jarri behar dutela, Soziolinguistika Klusterra eta erabiltzailea, dagokien beste zeinahi eskumeni espresuki uko eginda, Donostiako Epaitegi eta Auzitegien mende jarriko dira.